

PROGRAMEN EBALUAZIORAKO HASTAPENAK

Artikulu hau, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza baten bidez egin den ikerketa baten ondorioa da. Ikerketa horretan Erresuma Batuan, Italian eta Frantzia ezagutu ditugun programa batzuk aurkezten dira (konkretuki ahalurriak astialdian integratzeko programak). Artikulu honetan, ikerketa horren arauera, ebaluazioari buruz landu ditugun kontzeptu batzuk aurkezten dira.

Programa sozialen ebaluazioaz irakurtzeko, Cembranosek esaten duen moduan, Hegoamerikatik eta Estatu Batuetatik sortzen den literaturaz balia gaitzke. Hegoamerikako gizarte-lanari buruzko obrak (Ander-Egg, Espinoza, etab.) eta Iparamerikan hezkuntzari buruzko lanak izan daitezke iturririk nagusienak (Cembranos, 182 or.).

Literaturan, askotan, ebaluazio-prozesu konplikatuak aurkezten dira, batez ere interbentzioaren errealitateari begiratu badiogu. Geure ustez, ebaluazioa interbentzio-prozesuaren parte bat besterik ez da. Horrek esan nahi du ebaluazioa interbentzioaren zerbitzuan planteiatu behar dela.

Ander-Egg honetaz ari da zera esaten duenenan: "etiketazko traje bat eskaintzen zaizu, baina bakeroekin ibiltzeko" (Ander-Egg, 1987, 499 or.). Hau da, ebaluazioari buruzko egiten diren planteiamenduak, kasu bakoitzean moldatu behar dira. Ikerketa zientifikoaren printzipioei begira, baina interbentzioaren praktikotasunari ere bai.

Zer da, guretzat, ebaluazioa

Ebaluazioaz ikusi ditugun definizio guztiak puntu batera datoz: ebaluazioa

"gauza" bati balioa ematea da (Ander-Egg, 1984, 19 or.) (Fernandez Ballesteros, 1989, 83 or.) (Wiss, 13 or.). Geure kasuan "gauza" horiek programa sozialak dira.

Fernandez Ballesterosek eta VVeissek azpimarratzen dutenez ebaluazioa ikerketa sozialaren era bat da. Programa sozialak giza-sisteman aldaketak produzitu nahi dituzte ekintza-sistemak dira. Ebaluazio-prozesua, ez da besterik, programei balioa emateko, ikerketa sozialaren teknikak erabiltzea baino. Balorazio horretara heltzeko ebaluatzeak deskribatzea eta adieraztea suposatzen du.

Zer ebaluatu

Zertan fijasen garen? Zer ebaluatzen dugu? Horri deitzen diogu ebaluazioaren objektua edo gaia. Programen ebaluazioaz mintzatzen garenean, behar dugun marko teorikoa ezberdina izango da ebaluazioaren objektuaren arabera.

Ebaluazioaren objektua edo gaia lau hauen artean egon daiteke:

1. Programaren diseinuaren barneko trinkotasuna (idoneitatea).

2. Ea nahi liratekeen ondorioak lortu diren ala ez (efektibitatea).
3. Ea lortu diren erresultaduak "merezi duten" ala ez, kostuen arabera (efizientzia).
4. Ea programak balio duen, hasieran zegoen problemari irtenbide bat emateko (pertinentzia).

Lau objektu hauei literaturan izen ezberdinak ematen zaizkie. Ez dago akordio zabal bat. Dena den, argi dago ebaluazio mota ezberdinak suposatzen dutela eta ebaluazio bakoitza egiteko marko teorikoaren zabaltasun eta sakontasun maila ezberdinak behar direla:

1. Lehenengo kasuan zera hartu behar dugu kontutan: nola elaboratzen den programa bat.
2. Bigarren kasuan: Nola funtzionatzen duten programak giza-espazio edo komunitate konkretu batetan.
3. Beste bi kasuetan, arazo sozialei buruzko azterketa eta kontzeptuak behar dira.

Nolabait, bakoitzak aurrekoa suposatzen duela esan dezakegu.

Helburuak

Edozein ebaluazioaren helburua zera da: Informazio signifikatiboa lortzea, aldaketa posiblei buruzko erabakiak hartzeko. Hala ere edozein ebaluazio baten azpian interes batzuk daude eta ebaluazio prozesu bakoitzaren helburu konkretuak interes horien adierazpen bat dira.

Baldintzak

Ebaluazio on bat egiteko baldintzarik garrantzitsuena, inplikaturik dauden pertsonen kolaborazioa da. Parte hartze positibo hau ez bada ematen, informazioa faltako zaigu eta ebaluazioaren

erabilkortasuna dudatan jartzen da, jendeak ez baitio kasurik egingo.

Area edo arloak

Interbentzio sozialaren prozesua hiru fasetan analiza daiteke:

- Elaborazioa.
- Inplementazioa (praktikan jartzea).
- Ebaluazioa.

Fase bakoitzean, nahiz prozesuaz nahiz produktuaz har dezakegu informazioa. Horrela sei area agertzen zaizkigu:

1. Elaborazio-prozesua.
2. Elaborazioaren produktua: programa (paperaren gainean).
3. Inplementazio-prozesua.
4. Inplementazioaren produktua: erresultaduak.
5. Ebaluazio-prozesua.
6. Ebaluazioaren produktua: memoria.

Area bakoitzean subareak bereiz daitezke.

Pausuak

Orain arte esan duguna eta geroago esango duguna ordenatzeko, ebaluazio-prozesuaren pausuak aurkezten ditugu. Ebaluazio-prozesua, interbentzio-prozesua denez, honek dauzkan momentu berberak dauzka:

- Elaborazioa.
- Inplementazioa.
- Ebaluazioa.

Ebaluazioaren elaborazio-prozesuaren barruan pauso hauek bereizten ditugu:

1. Ebaluatzailearen hautaketa edo ebaluatzaileen ekipoaren osaketa.
2. Ebaluazioaren helburuen definizioa.
3. Ebaluazioaren gaia edo objektuaren definizioa.
4. Interesetzen zaizkigun area edo arloen hautaketa.

5. Marko teorikoaren formulazioa.
6. Hipotesien elaborazioa.
7. Adierazleen edo indikadoreen definizioa.
8. Baldintzen ezagupena.
9. Informazioa hartzeko eta prozesatzeko erabiliko den tekniken hautaketa edo prestakuntza.
10. Funtzioen banaketa eta ekintzen programazioa.
11. Errekurtsoen kalkulua.

Ebaluazioaren inplementazioaren pausuak hauek izango lirateke:

1. Informazioa lortzea.
2. Informazioaren eraketa eta analisisa.
3. Ondorio adierazgarriak eta erabakitzeko orientabideen formulaketa.
4. Informearen erredakzioa.

Geroago ebaluazioaren ebaluazioa dator. Teorian, pausuak, orain arte adierazi ditugunak izango lirateke berriro. Baina hola ez genuke inoiz amaituko.

Marko teorikoa, hipotesiak eta adierazleak

Sierrak (47 or.) esaten duenez, teoria, ikerketa sozialaren garrantzizko elementu bat da, nolabait beronen jatorria, markoa eta amaiera da. Geure ustez, marko teorikoa, norberaren kontzeptu ideologiko eta zientifikoaren eraketa besterik ez da.

Hipotesiak, egiaztatu ez diren, baina egiaztatu daitezkeen esaldiak dira. Gertatzen denaren adierazpen posibleak izaten dira. Marko teorikoarekin lotura logiko bat daukate, baina errealitateara hurbiltzen laguntzen gaituzte.

Baina errealitate hori ikututzeko indikatzaileak eratu behar ditugu. Indikatzailea ebaluazio-erizpide bat ematen den ala ez esaten digun informazio-unitate bat da.

Teknikak

Cembranosek esaten duenez (198 or.), teknika bat ala beste bat aukeratzeko elementu batzuk hartu behar ditugu kontutan:

- Lortu nahi dugun informazio mota: eritziak, portaerak, etab.
- Zergatik eta norentzat egiten den ebaluazioa.
- Dauzkagun errekurtsoak (jendea, errekurtso teknikoak, dirua, etab.).
- Denbora.
- Programan ematen den egoera konkretua (ebaluazioa egiten den momentuan).

Orain teknika batzuk aurkeztuko ditugu.

Obserbazioa

Obserbatzea, behatzea, zentzuak (bista batez ere) erabiltzea besterik ez da. Programa batetan parte hartzen dutenentzat hau da informazio iturririk nagusiena. Kanpotik datozenentzako zailagoa da haien presentziak errealitatean eragin bat izan dezake-lako. Hala ere erabili egiten da.

Obserbazioa teknika zientifikotzat hartzeko, zuzendua eta sistematikoa izan behar du. Estructura gehiago edo gutxiagorekin, beti egon behar du helburu batzuren menpean.

Obserbazioaren problema obserbatzailearen pertzeptzioaren mugetan datza. Horien kontra obserbatzailearen kompetentziak jokatzeko du. Horrez gain, laguntza teknikoak erabili daitezke (notak hartzeko, esate baterako) baina batzuk artifizialitatea gehitzen dute.

Kuestionarioak

Kuestionario bat, galdera batzuren multzo egituratu eta sistematikoa da. Kuestionarioak aplikazio ezberdinetatik informazio mota berdina lortzeko balio du. Obserbazioa baino zeharkakoagoa da, informazioa ez baitugu guk zuzenki lortzen, pertsona batzuren bidez baizik.

Kuestionario bat, ona izateko, interesatzen zaigun arlo osoa bete behar du, ezer falta edo errepikatu barik, eta informazioaren prozesamendua errazteko moldatu behar dugu.

Kuestionarioa prestatzeko ondo pentsatu behar dugu ordena, galderen formulazio aseptikoa, galdera mota (zabala, dikotomikoa, kategoriazkoa), etab.

Entrebista

Entrebista, pertsona bi edo gehiagoren arteko elkarhizketa bat da. Elkarhizketa horretan batek galdetzen du eta besteak erantzun egiten du. Pertsona hauek eske-ma batzuen arauera egiten dute elkarhizketa.

Kuestionario hutsarekin konparatzen badugu, entrebistak duen abantaila ñabar-dura gehiago hartzeko posibilitate'a ematen duela da. Problema batzuk baditu ere: denbora eta diru gehiago behar dira, entrebistatzailearen ikuspegiaren eragina handiago izan daiteke, etab.

Dokumentuen azterketa

Programa baten ebaluazioa egiteko berorren produkzio dokumentala azterzea interesgarria da: estudioak, txostenak, fitxak, memoriak, urtekariak, argazkiak, pelikulak, etab.

Talde sesioak

Beste teknika bat, talde egoerak sortzea izan daiteke.

BIBLIOGRAFIA

ANDER—EGG, E.: *Evaluación de programas de trabajo social*. Buenos Aires. Humanitas. 1984. 85 or.

Técnicas de investigación social. Méjico. El ateneo. 1987. 500 or.

Investigación y diagnóstico para el trabajo social. Buenos Aires. Caritas. 1987. 144 or.

ARTELLS, J.J. *Una revisió a l'evaluació deis servéis socia/s*. Barcelona Generalitat. 1986. 21 or.

BARDIN, LAURENCE. *Análisis de contenido*. Madrid. Akal. 1986. 183 or.

BEACHEL, L. "PASS as a Leisure Service Evaluation Tool". *Journal of Leisurability*. 8, 2. abril 1981. 26 or. Ontario.

CAVET, J. *Occupational and leisure activities for people with profound retardation and múltiple impairments* (Final Report). Manchester. Hestern Adrián Research Centre/División for Action in favour of Disabled People (Commission of the European Communities). 1989. 144 or.

CEMBRANOS, F. *La animación sociocultural: una propuesta metodológica*. Madrid. Popular. 1988. 238 or.

COHEN, E. ETA FRANCO, R. *Evaluación de proyectos sociales*. Buenos Aires. Grupo Editor Latinoamericano. 1988. 342 or.

CORRAL, L. *Seguimiento de la gestión de los servicios sociales comunitarios (propuesta de un sistema de indicadores)*. Madrid. Siglo XXI. 1988. 142 or.

ECO, U. *Cómo se hace una tesis*. Barcelona. Gedisa. 1983. 267 or.

ESPIÑOZA, M. *Evaluación de proyectos sociales*. Buenos Aires Humanitas. 1983. 218 or.

FEAPS. *Evaluación de servicios para personas con deficiencia mental*. 33 or.

FEDERACION NATIONALE LEO LAGRANGE. *Méthodologie du projet et de l'évaluation*. París. 1982. 12 or.

FERNANDEZ-BALLESTEROS, R. "Evaluación de Servicios Sociales" *Pape/es del Psicólogo*. II, 41/42. Urrialabendua. 1989. Madrid. Colegio Oficial de Psicólogos. 83 or.

Listado de cuestiones en evaluación de programas (LCREP). Madrid. Universidad Autónoma. 20 or.

FRANCESCATO, D. ETA GHIRELLI, G. *Fondamenti di psicologia di comunitá*. Roma. Nuova Italia Scientifica. 1988. 354 or.

GARCIA GONZALEZ, J.A. "Cuestiones y modelos teóricos en Psicología Comunitaria" **MARTIN, A.** *Psicología comunitaria*. Visor. 401 or.

GIMENO-SACRISTAN, J. *La evaluación de programas en el campo socio-educativo*.

GROUPEMENT D'ETUDE DES CENTRES SOCIAUX ET DU DEVELOPPEMENT LOCAL.

L'évaluation de l'action d'un centre social dans le cadre d'un contrat de projet 1987-1989. París. 1989. 68 or.

HERMANS, J. Y OTROS. *Evaluator's handbook*. Mewbury Park. Sage. 1987. 160 or.

IDC. *Pursuing quality*. London. 1986. 48 or.

KEMMIS, S. Y Me. TAGGART, R. *Cómo planificar la investigación-acción*. Barcelona. Laertes. 1988. 199 or.

LOPEZ, E. "La evaluación de programas". *Papeles del Colegio (Psicólogos)*. V, 31. Urna 1987. Madrid. Colegio Oficial de Psicólogos. 17 or.

LOPEZ DE CEBALLOS, P. *Un método para la investigación-acción participativa*. Madrid. Popular. 1987. 128 or.

MEDINA, M. "Evaluación de programas". MARTIN, A. *Psicología comunitaria*. Visor. 401 or.

PATTON, M. **Practical evafuation**. Beverly Hills. Sage. 1982. 320 or.

SIERRA BRAVO, R. *Técnicas de Investigación social (Teoría y Ejercicios)*. Madrid. Paraninfo. 1988. 709 or.

TAYLOR, C. ETA LYONS, L. *How to Design a Program Evaluation*. Newbury Park. Sage. 1987. 168 or.

WEISS, C. *Investigación evaluativa*. México. Trillas. 1987. 184 or.

WOLFENSBERGER, W. ETA GLENN, L *PASS 3 (Programa de Análisis de Sistemas de Servicios)*. Vitoria. SADMA. 1 982. 1 70 or.

Fernando Fantova